



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena**  
**Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa**  
**Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroak 19**

**Vitoria-Gasteiz, 19 de noviembre de 2019**

## Lehendakaritza

### **AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA"**

Azaroaren 25a "Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna" da eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzak indarkeria sexistaren adierazpen guztien aurrean gaitzespen irmoa adierazten du, bai eta emakumeenganako indarkeriarik gabeko gizarte berdinzalea eraikitzearekin duen konpromisoa ere.

Gure ustez, erabat beharrezkoa da gogoraraztea emakumeen aurkako indarkeriaren sustraia emakume eta gizonen desberdintasuna dela eta, beraz, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraiki ahal izateko, berdintasunean lan egitea ezinbestekoa dela.

Emakumeen aurkako indarkeriak egiturazko izaera du, eta dimentsio eta bizitzako eremu guztietan du eragina. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak emakumeen aurkako indarkeriari ematen dion erantzuna diziplina artekoa da, eta bizitzako edozein eremutan emakumeen beharrak prebenitzeko eta haiei arreta emateko eskumenak dituzten gobernuko arlo guztiak inplikarazten ditu.

Gaur, Gobernuko sailen artean eta beste erakunde batzuekin batera koordinatuta lan egiten jarraitzeko dugun konpromisoa berresten dugu, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartean aurrera egin eta indarkeriaren biktima diren emakumeei ahalik eta berme gehienekin emateko arreta.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailean SATEVI - indarkeriaren biktima diren emakumeei 24 orduz informazioa eta arreta telefono bidez emateko zerbitzuaren bidez eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prestazio ekonomikoen bidez jarraituko dugu lanean; Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailean, etxebizitzarako sarbidea izateko bide ematen diegu; Osasun Sailean, arreta espezializatuaren bidez; Lan eta Justizia Sailean, Biktimei Arreta emateko Zerbitzuaren (BAZ) bidez, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Zentro Koordinatzailearen barruan, doako laguntza juridikoaren bitartez; Hezkuntza Sailean, hezkuntza-sisteman genero-indarkeriaren baterako hezkuntzarako eta prebentziorako Plan Gidariaren bidez edo zenbait programaren bidez –bestek beste, Nahiko, Beldur Barik...–; Segurtasun Sailean, emakume biktimei segurtasuna eta babesa emanez, eta emakume biktimei arreta emateko lanbide-heziketaren aldeko apustua eginez, Jabetuz bezalako prestakuntza-programen bidez. Hori guztia, Emakundek koordinatuta.

Gobernuak berretsi egiten du Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean eta 2030eko Garapen Jasangarrirako Agendaren 5. helburuan jaso den erronka handi horri erantzun egokia emateko etengabeko hobekuntzarekin duen konpromisoa. Konpromiso hori berdintasunerako euskal legea aldatzeko

proposamen berrian islatzen saiatuko da, berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeriaren amaiera finkatzeko.

Azkenik, egunero emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko zenbait eremutatik lan egiten duten profesionalen lana aitortzen du. Aldi berean, egoera horietan dauden emakume guztiei laguntza- eta elkartasun-mezua helarazten die. Era berean, herritarrak animatzen ditu egunero jarrera aktiboa eta emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko jarrera erakustera, eta, horretarako, eguneroko konpromisoak hartzea eta azaroaren 25erako herri eta hirietan deitu diren mobilizazioetan parte hartzea.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### **EUSKADIKO TOKI-ERAKUNDEETAN BI HIZKUNTZA OFIZIALEN AHOZKO ZEIN IDATZIZKO ERABILERA ARAUTUKO DUEN DEKRETU BERRIA ONARTU DU EUSKO JAURLARITZAK**

- Hemendik aurrera, udal bakoitzak erabaki eta azaldu beharko du barne-harremanetan zein harreman publikoetan bi hizkuntzen erabilera nola antolatuko duen
- Dekretu honen bitartez toki-erakunde guztietarako arau bakarra zuen fasea itxi eta aro berri bat irekiko da, non toki-erakunde bakoitzak zer hizkuntza erabili erabakiko duen bere errealitate soziolinguistikoaren arabera
- Bere helburuen artean daude: euskara lan-hizkuntza eta erakundeen arteko harremanetarako hizkuntza bilakatzea, itzulpen eta interpretazioen beharra arrazionalizatzea eta hizkuntzaren erabilera udalerrietan -eta udalerrietatik- bultzatzea

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du "*Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa normalizatzeko Dekretua*". Arau honek, legegintzaldi honetan ere onartu den "*Udal-eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozko jardueren, zerbitzuen edo prestazioen egikaritzea arautzeko Dekretua*" delakoarekin batera, 2016. urtetik indarrean dagoen "*Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea*" garatu eta osatuko du. Arau berri honen xede nagusia da euskararen erabilera bultzatzea udalerrietan –eta udalerrietatik-, lan-hizkuntza eta biztanleei zerbitzua eskaintzeko hizkuntza bilaka dadin, gaztelerarekin batera, tokiko mailan ere.

Dekretu berriak zazpi kapitulutan banaturiko berrogeita hemeretzi artikulua, bost xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapen biltzen ditu. Bere xedea da euskararen eta gazteleraren ahozko zein idatzizko erabilera arautzea udal, toki-erakunde eta beren mendeko erakunde eta sozietate guztietan, bai eta udal zerbitzuren bat eskaintzeko kontratatutako edo esleitutako enpresetan ere.

### **UDAL AUTONOMIA**

Arau berriak udal autonomia osoa aitortu eta berresten du, udalek erabakiko baitute, beren errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta, euskararen barne eta kanpoko erabilera nola antolatuko duten.

Dekretu honen bitartez toki-erakunde guztientzat arau bakar eta komuna (*Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko 10/82 Legea*) zuen faseari amaiera ematen zaio. Horren orde, aro berri bat irekiko da non toki-erakunde bakoitzak barne-jardueran eta kanpoko harremanetan erabiliko duen hizkuntza era askean eta indibidualki erabakiko duen. Hori guztia herritarrek udal-erakundearekiko harremanetan hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea

bermatuz beti, inolako diskriminaziorik gabe, eta, ondorioz, horretarako beharrezkoak diren neurri guztiak hartuz (1. eta 15. artikulua, besteak beste). Honela, **11. artikulua** dioen bezalaxe, Euskadiko toki-erakunde bakoitzak bi hizkuntza ofizialak ahoz zein idatziz erabiltzeko irizpideak eta jarraibideak erabaki, adostu eta azaldu (ordenantza, erregelamendu edo kudeaketa-plan baten bitartez) beharko ditu. Erabilera hori ondoko arloei dagokienez arautu beharko da:

- ✓ Udal gobernuko eta udal zerbitzuetako organoen barne-funtzionamendua: organoetako bileretako hizkuntza, deialdi, gai-zerrenda, mozio, boto partikular, akordio-proposamen, batzorde-irizpen, organoetako akta, prozedura, administrazio-espeditente, datu-base eta antzekoen idazketa.
- ✓ Beren harremana biztanleriarekin eta beste erakunde guztiekin: jakinarazpen eta komunikazio indibidual edo orokorrak.
- ✓ Estandarizatuko dokumentuen hizkuntza-formatua.
- ✓ Ekitaldi publiko eta argitalpenak: esku-hartze publikoak, prentsaurrekoak hedabideen aurrean, etab.
- ✓ Udal eraikin eta instalazioetako errotulazioa eta hizkuntza-paisaia (barne zein kanpoko).
- ✓ Itzulpen eta interpretazioaren erabilera.
- ✓ Administrazio-kontratazioa: administrazio-klausulen edo baldintza teknikoaren orriak, etab.
- ✓ Iragarki, publizitate eta komunikazio-kanpainak: eslogan, liburuxka, kartel eta dibulgazio- edo informazio-oharrak, etab.

## **EUSKARA, LANEKO HIZKUNTZA**

Dekretuaren lehentasunezko helburuetako bat (1., 9., 13. eta 20. art.) da euskara normaltasunez eta orokorrean erabiliko den lan-hizkuntza bilakatzea, eta udalerrriaren funtzionamendua euskaraz ahalbidetzea. Horretarako, beren barne-jardueretan euskararen erabilera hazkorra pixkanaka-pixkanaka ahalbidetuko duten erabakiak hartu beharko dituzte toki-erakundeek. Horrexegatik, udalak horrela erabakitzen badu, euskara lan-hizkuntza izenda dezake derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarria duten lanpostuetarako. Era berean, langile publikoen eta hautetsien ahozko eta idatzizko gaikuntza - prestakuntzaren bitartez- bermatzeko beharra izango dute toki-erakundeek.

Xedea da itzulpenen eta interpretazioen erabilera arrazional bat egitea toki-erakundeetan (21. art.). Dokumentuen euskaratzea saihestea beren errealitate soziolinguistikoaren ondorioz langileek euskara erabiltzen duten udaletan, gaztelera laneko hizkuntza duten beste eremu soziolinguistiko batzuetan egiten den bezalaxe (eta lan hori balioduna da erabat).

Helburu horretarako, dekretuak erakundeen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatu nahi du (40. art.). Honela, dekretua onartzen denetik aurrera bere harremanetan euskara erabiltzea erabaki duen udal batek beste erakunderen batera igortzen dituen dokumentu eta kopiak hizkuntza horretan igorri beharko ditu.

## **MAILAKAKO EGOKITZAPEN DIGITALA**

Udal bakoitzak hartzen duen erabakiarekiko egokitzapena mailakatua izango da, baina dekretua onartzen denetik aurrera, Euskadiko udal guztiek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte beren ofimatika-materiala euskaraz ere eskuragarri egon dadin (22. eta 23. art.). Honela, tokiko sektore publikoak erabiliko duen softwareak eta hardwareak, aplikazioek, Internet eta intranet sareek eta webguneak euskaraz ere egon beharko dute eskuragarri. Azken horrek, gainera, euskarazko bertsioa lehenetsi beharko du. Eta gauza bera dio dekretuak gailu automatikoetan grabaturiko mezu, telefono bidezko informazio-zerbitzu, bozgorailu, megafonia eta antzeko guztiei dagokienez. Euskarazko mezua izango da lehena (25. art.).

## **EUSKARA, UDAL ESKUMENA**

Gaur onartutako dekretuak, gainera, euskararen sustapenaren arloan udalek dituzten eskumenak aitortzeko bultzada ematen du. Ondorioz, udalek egoki deritzeten laguntza, diru-laguntza edo zerga-salbuespen guztiak onartzeko aukera izango dute (58. art.) euskararen erabilera eta hedatzea bultzatzeko xedearekin. Hemendik aurrera, udalek hizkuntza-plangintzarako tresnak izan beharko dituzte, une bakoitzean egokienak diren neurriak, aldizkakotasuna eta emaitzen ebaluazioa ezartzeko.

## **TOPONIMIA**

Dekretuaren bosgarren kapituluak udal toponimia eta bide eta zerbitzuen seinaleztapena arautzen ditu. Ere horretan, botere publiko ezberdinen eta Euskaltzaindiaren eskumenek eta ardurek eragiten dute. Euskal Autonomia Erkidegoko antolamenduaren baitan toponimiaren gaia lantzen duen lege izaerako xedapen bakarra Euskararen Erabilpena Normalizatzeko Legea da. Arau horrek adierazten du lurraldeen, udalerrien, biztanleria-erakundeen, istripu geografikoen, hiri-bideen eta, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoen nomenklatura ofiziala Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek edo udalek ezarriko dutela, bakoitzak bere eskumenen esparruan.

Dekretu berriak aldundien eta udalen eskumen diren toponimoak zehazteko eta aldatzeko prozeduraren oinarritzko arauak zehazten ditu, bai eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenerako toponimoak onartu eta ofizial egiteko prozedura oso bat ere. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofiziala sortzen du, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikitako erregistro publiko gisa, eta bertan inskribatuko dira Euskadiko toponimo ofizialak. Dekretuak dioenez, izen ofizialen inguruko gatazkaren bat sortuko balitz toki-erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren artean, azken honek ebatzi beharko du gaia Euskaltzaindiaren irizpena jaso ondoren.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### EUSKO JAURLARITZAK BESTE 4,1 MILIOI SARTUKO DITU GUNE AHULETAKO (INDARTU) ETA ZAILTASUNETAN DAUDEN GUNEETAKO (BIDERATU) INDUSTRIARAKO 2019KO LAGUNTZETARAKO

- Gune ahuletako inbertsiorako ahalegin pribatua 181 milioikoa da; beraz, *Indartu 2019* programak 14 MM ditu, ahalik eta inbertsiorik handiena apalankatzeko
- *Bideratu* programak krisian dauden enpresak berregituratzeko eta berriz sustatzeko laguntzak ezartzen ditu. 2019ko laguntza areagotu da eta, 2,4 milioikoa barik, 4,5 milioikoa da; izan ere, enpresak gehiago inplikatu dira eremu pribatuan bideragarritasun-irtenbideak adosteko
- Horrela, Eusko Jaurlaritzak aurrekontu bidez sendotu egiten ditu industria-sustapeneko lehentasunak eta, horretarako, 2020ko aurrekontuan ere aurreikusitako konpromisoa berregiten du

Gobernu Kontseiluak, gaur, INDARTU eta BIDERATU laguntza-programetarako aurrekontu-kreditua beste bi milioi euro eta beste bi milioi, ehun eta berrogeita hamar mila euroan handitzea onartu du, hurrenez hurren; alegia, 12 milioitik 14 milioira eta 2 milioitik 4,5 milioira, hurrenez hurren.

#### 14 M gune ahuletarako eta 181 M-ko inbertsio pribatuak apalankatzeko

INDARTU programa, Nerbioi itsasadarraren ezker aldean eta Oiertzualdean eta Euskal Autonomia Erkidegoko % 20ko urteko batez bestekotik gorako langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuetan ekoizpen-inbertsioa egingo duten eta, beraz, gune horietako lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa eragingo duten enpresentzako laguntzei buruzkoa, 2019ko apirilaren 17ko Aginduaren bidez arautu zen, eta, **aurten, 12 milioi euro izan ditu.**

Gune ahuletako ekimen pribatuko ahalegin inbertitzaileak aurreikusitako asmoak gainditu ditu; horregatik Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak erabaki du laguntzen zenbatekoa areagotzea, ahalik eta inbertsio handiena apalankatzeko.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta –pasa den irailaren 30ean–, **aurkeztutako 45 espedienteek** –dirulaguntza jaso dezakeen **140 milioi euroko inbertsio** ingurukoak– ondorioztatzen du emakidak 14 milioi eurokoak izango lirakeela; beraz, areagotu egin behar da hasierako zenbatekoa, beste

bi milioi euroan, araudia betetzen duten onuradunentzako emakidak ebatzi ahal izateko.

**Funts galdurako dirulaguntzen** programa hau industria-enpresak diren eta industriari lotutako zerbitzuetako enpresak diren enpresa handi eta ETEei zuzentzen zaie, baldin eta beren inbertsioak intzidentzia bereziko guneetan egiten badituzte; programa bera 2017-2020ko Industrializazio Planean eta 2018-2019ko Gune Ahuletako Talka Planean kokatzen da. Helburua da garapen ekonomikoa eragingo duten inbertsio produktiboak eta lehiakorrek laguntzea, izan enpresa berrietan, izan indarrean dauen enpresetan.

	2015	2016	2017	2018	2019	Guztira
<b>Deialdiko dirulaguntza</b>	8	8	8	8	12+2	<b>46</b>
<b>Inbertsio induzitua</b>	89,1	39,9	25,5	87,5	181	<b>432</b>
<b>Proiektu-kop.</b>	10	12	9	27	41	<b>99</b>
<b>Enplegu berriak</b>	428	185	75	421	356	<b>1.465</b>
<b>Enpleguak mantentzea</b>	2.374	800	504	2.105	3.399	<b>9.182</b>

#### **4,5 milioi, enpresak berregituratzeko, jabetzaren, zuzendaritzaren eta enpresa-batzordeen artean adostutako akordioei esker**

BIDERATU programa 2017ko urriaren 17ko Aginduak arautzen du, eta krisian dauden enpresak berregituratzeko eta berriz sustatzeko laguntzak ezartzen ditu. 2019ko ekitaldirako, 2 milioi eta 400 mila euro aurreikusi ziren. Irailaren 30ean aurkeztutako berregituratze-planetan oinarrituta –8 espediente 9 milioitik gorako kostuaren inguruko balorazioarekin–, emakidak 4 milioi eta 550 mila eurokoak izango direla kalkulatzen da. Horrenbestez, 2.150.000 euroan areagotu behar dira laguntza horietara bideratutako funtsak.

2019ko deialdian, zailtasun-egoeretan egonik enpresaren eremuan hasierako akordioa lortu duten eta, horrela, Bideratu laguntzetan parte hartzeko ezinbesteko irizpideak bete dituzten enpresen ohiko kasuak baino gehiago izan dira.

Eskakizun horien artean daude jabetzaren, zuzendaritzaren eta langile-batzordeen arteko akordioa, Bideraturen laguntzaren bidez, enpresaren egoera hobetzen lagundu ahal izateko bideragarritasun-plana ezartzeko.

Aztertu diren 8 kasuetatik, 6 ildo horretatik joan dira, eta aurreko edizioetako zifra gainditu da, kontuan hartuta orduan enpresaren barruan akordioetarako zeuden zailtasunen ondorioz ezin zela Bideratu laguntza publikoa gauzatu.



Gogorarazi behar da zailtasunak dituzten enpresentzako baliabide publikodun programa hau aplikatzeak Europar Batasunak ezarritako eskakizunei erantzuten diela; izan ere, hark laguntza horietarako aukera ematen du, baldin eta aurretik aipatu ditugun eskakizunak zorrotz betetzen badira.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

**SENDOTU PROGRAMAREN BITARTEZ, 15 MILIOI EUROREKIN  
BABESTUKO DITU EUSKO JAURLARITZAK LEHEN SEKTOREKO  
INBERTSIOETARAKO ETA LANDA GARAPENERAKO PROIEKTUAK**

- **2015az geroztik 32 milioi euro bideratu ditu SENDOTU programak mailegu operazioak finantzatzeko**
- **Finantzen Euskal Erakundeak eta beste finantza erakunde batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin izenpetutako Lankidetzak Hitzarmenaren baitan formalizatuko dira maileguak**

SENDOTU Programa 2019-2020 urteetarako arautzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman duen agindua onartu du Gobernu Kontseiluak. Aginduaren arabera, programak arriskua finantzatzeko laguntza lerro bat aurreikusten du, zeina maileguen bitartez emango baita. Mailegu horien zenbateko osoa 15.250.000 eurokoa izango da eta Finantzen Euskal Erakundeak eta beste erakunde batzuek formalizatuko dituzte maileguak. Helburua da abeltzaintzan, nekazaritzan, basogintzan, arrantzan, elikagaigintzan eta Euskal Herriko landa guneak eta itsasbazterreko guneak garatzeko jardueretan inbertsioak egiteko proiektuen garapena bultzatzea.

Finantzen Euskal Erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta programan parte hartzen duten beste finantza erakunde batzuek izenpetutako Lankidetzak Hitzarmenaren baitan formalizatuko dira maileguak, esparru horretan eratu baita Berme Fondo bat. Finantzen Euskal Erakundeak eta kreditu erakundeek, berriz, hitz ematen dute 2019an eta 2020an dagozkien maileguak emango dituztela. Finantzaketa onartuz gero, programan parte hartzen duen Finantza Erakunde laguntzaile baten eta Finantzen Euskal Erakundearen artean egingo dute finantzaketa, erdibana.

### **SENDOTU programaren balantzea**

Sendotu programak 2015ean ekin zion bere ibilbideari, nekazaritzan, basogintzan, arrantzan, elikagaigintzan eta landa garapeneko jardueretan inbertsio programak garatzea errazteko. Harrez gero, **32 milioi euro finantzatu dira mailegutuan, eta horietatik 21 milioi 2015ean eta 2016an emandako maileguei dagozkien eta 11 milioi 2017ko eta 2018ko urteetan emandakoei.** Diru kopuru horiei esker **31 finantzaketa eragiketari erantzun zaie –18 finantzaketa 2015/2016 SENDOTU programarekin, eta 13 2017/2018 SENDOTU programarekin–**, eskainitako bermearen bitartez, sektoreko proiektu ugari kanpoko finantzaketa eskuratzeko aukera emanda.

Onuradunak pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke, betiere enpresa txiki eta ertainen izaera badute. Bete behar dituzten baldintzak dira gutxienez guztirako gastuen %20 inbertsio pribatu bidez estalita egon behar direla eta

arriskuaren finantzaketaren guztirako zenbatekoa 15 milioi euro baino gehiago ez izatea enpresako. Eta horrez gain, Foru Ogasunekin dituen zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak egunean eduki beharko dituzte, ez dira krisian dagoen enpresa bat izango, eta ez dira inolako espediente zigortzailearen menpe egongo. Eskatzaileek proiektu berbererako beste laguntza publikoren bat eskatu eta eskuratu badute, jakinarazi egin beharko dute.

Laguntzak esleitzeko ondoz ondoko konkurrentzia prozedura erabiliko da. Horrek esan nahi du esleipena modu ordenatuan egingo dela, betetako eskariak aurkezteko unearen arabera, eta hurrenkera horri jarraituta ezarritakoa betetzen duten eskatzaile guztiei esleituko zaiela, ezarritako fondo guztiak agortu arte.

### **Eskabideen aurkezperako epea**

Eskaerak aurkezteko epea Agindua indarrean sartzen den egunean hasi, eta fondoak agortzen diren egunean bukatuko da. Emango diren mailegun bolumenari esleitutako dirua agortzen bada, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak ebazpen bat emango du, esleitutako diru kopurua agortu dela adieraziz. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ebazpena argitaratzen den egunetik aurrera eskaerarik aurkezten bada ez da onartuko.

Aurkeztutako eskaerak Balorazio eta Jarraipen Batzorde batek baloratuko ditu, batera, eta Batzordea, berriz, eragiketa bakoitzean parte hartzen duten aldeetako bakoitzak osatuta egongo da.

Finantzaketan laguntzeko SENDOTU programaz baliatzeko eskaera orria <http://www.euskadi.net> webgunean egongo da eskuragarri.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### **EUSKO JAURLARITZAK BAIMENA EMAN DU SHIF2RAIL-EKIN TRENBIDE ARLOKO IKERKETARI ETA BERRIKUNTZARI BURUZKO MOU-A SINATZEKO**

Gobernu Kontseilua gaur izan da eta, bertan, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eta Shift2Rail-en artean (Europar trenbide-arloko ikerketa eta berrikuntza gehiena bideratzen duen organismoa; Bruselan du egoitza) lankidetzaren memorandua sinatzea onartu du.

Shift2Rail ekimen publiko-pribatua da, eta Europako Batzordeak sustatzen du, Europako beste zazpi trenbide-enpresa sortzailerekin batera; enpresa horien artean Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles (CAF) euskal multinazionala dago. Shift2Railek, bestalde, elkartutako beste enpresa batzuk ere baditu, eta haien artean Euskadiko AERNNOVA eta Estatuko TALGO ere badaude (azken hori Euskadin finkatuta dago), bai eta, besteak beste, TECNALIA eta CEIT euskal ikerketa-zentroak eta Europako hiru unibertsitate ere; unibertsitate horietako bat Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) da. Shift2Rail 2014an sortu zen, eta 920 milioi euroko aurrekontua du.

Hori guztia dela eta, Eusko Jaurlaritzak eta Shift2Rail-en ikerketa-programek elkarlanean jardun ahalko dute ikerketako eta baterako finantzaketako lehentasunezko estrategiak ezartzen, trenbide-sektorean ikerketa- eta berrikuntza-proiektuen gainerako tresna eta deialdiekin; horrek sustapen berria eta esanguratsua ekarriko du Euskadin trenbidearen sektorearen garapenean, eta, horrek, aldi berean, Europa osoan trenbide-sektorea sendotzeko balioko du, horrelako lankidetzaren akordioen bidez sortzen diren sinergieiei esker.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO USOA BABES FUNDAZIOA ERAKUNDEA GIZARTE-INTERESEKOTZAT AITORTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUARI

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Usoa Babes Fundazioa erakundea gizarte-interesekotzat aitortzen duen dekretu-proiektuari; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, bere gizarte-ekintzako jardueren bidez, gizarte-zerbitzuen garapenean laguntzen duela irizten du, eta Gizarte Zerbitzuen Legean aurreikusitako eskubideak aitortzen dizkio.

**Usoa Babes Fundazioa** erakundeak adierazpen hori eskatu zuen; izan ere, garatzen dituen gizarte-ekintzako jardueren ondorioz, gizarte-intereseko erakundearen aitortzea merezi du. Erakundea Adimen Ezintasuna duten Pertsonen Arabako Elkartearen (APDEMA) babes-fundazio gisa eratu zen, 1985ean, eta, izendapenean zenbait aldaketa izan ondoren, gaur egun **Usoa Babes Fundazioa** izena du.

Fundazioaren helburua da desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurriak gauzatea, jarduteko gaitasuna aldatzeko prozesuan ezarri direnak edo beren desgaitasunarekin zerikusia dutenak, Fundazioari esleitu zaizkionak, bai prozesu judizialean, bai interesunek prebentzio gisara, bai haiek ezartzeko lege-ahalmena duten pertsonak.

Fundazioaren beste helburu batzuk dira aurreikuspeneko erakunde, jarduera eta zerbitzu mota guztien eraketa, hobekuntza eta garapena sustatzea, eta, oro har, Fundazioaren xede diren pertsonak hobeto defendatzen eta babesten zuzenean edo zeharka laguntzen duen beste edozein ekimen sustatzea.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak ematen ibilbide historikoa du; izan ere, erkidego honetan 2014tik etengabe egiaztatu du bere jardueraren garapena. Arabako Lurralde Historikoan dihardu lanean, nagusiki.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### GARAPENERAKO LANKIDETZAKO ERAKUNDEENTZAKO DEIALDI BERRIA, 2020AN “EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN” PROGRAMARAKO PROIEKTUAK AURKEZTEKO

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio **Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren** aginduari; **haren bidez, garapenerako lankidetzako erakundeei dei egiten zaie, 2020an “Euskadiko Gazteak Lankidetzan” programarako proiektuak aurkezteko.** Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko garapenerako lankidetzako erakundeei egiten zaie dei, **2020ko “Euskadiko Gazteak Lankidetzan” programarako proiektuak aurkezteko.** Hala, programa horren deialdi berezian eskainiko diren gazte kooperanteen profilak izango dira.

**700 euroko laguntza emango da** deialdi honen bidez **hautatutako proiektuko parte-hartzaile bakoitzeko**, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan hautatutako gazte boluntarioaren **egonaldiko eta mantenuko gastuak** zati batean ordaintzeko.

Programaren helburua elkartasunaren balioa sustatzea eta Euskadiko gazteen sentsibilizazioa bultzatzea da, garapenerako lankidetzarako ekintzen bidez. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa **1993an hasi zen, eta, urte hauetan, Euskadiko 2.317 gaztek parte hartu dute.** Kostu ekonomikoa **70.000 eurokoa da.**

2019ko deialdian, **45 proiektu** hautatu ziren eta, haietan, **98 gaztek** garapenerako lankidetzako ekintzetan parte hartzeko aukera izan zuten, Amerikako, Afrikako eta Asiako zenbait herrialdetan.

Euskadiko GGKE hauek parte hartu zuten: Arquitectos sin Fronteras Euskadi, Asociación Africanista Manuel Iradier, Asociación para el Desarrollo Foro Rural Mundial, Asociación Egoaizia para Cooperación al Desarrollo, Asociación Servicio Solidario San Viator, Asociación Taupadak, Asociación Vasca Solidaridad Internacional, Asociación Xenofobiaren aurka taldea Berdinak Gara, Edex Centro de Recursos Comunitarios, Fundación Ayuda en Acción, Fundación Ayuda Más ONGD de Bilbao, Fundación Benito Menni, Fundación Jóvenes y Desarrollo, Fundación Juan Ciudad, Fundación La Valmuza, Fundación Mozambique Sur, Haurralde Fundazioa, Hermanas Pasionistas eta Medicus Mundi Bizkaia.

Programako parte-hartzaileen hautaketa egin ondoren, 100 gazte hautatu ziren, eta, azkenean, 98k bizi izan zuten esperientzia 14 herrialdetan: Bolivia (4 pertsona), Kamerun (2), Kolonbia (5), Ekuador (8), El Salvador (3), Ghana (2), Guatemala (9), Honduras (3), India (2), Mexiko (14), Mozambique (4), Nepal (2), Peru (38) eta Senegal (2).

Onetsitako proiektuak hainbat tipologiatakoak izan ziren, baina nabarmendu beharra dago boluntarioek honako haueetan izandako parte-hartzea: Pueblan eta Oaxacan (Mexiko) 20 kooperatibek dituzten ahalmenen sendotzean, ekonomia sozialaren eta solidarioaren ikuspegitik; ikastetxeetan, Peruko eta Guatemalako gune ahuletako umeentzako laguntza sendotzeko (hezkuntza berezia, logopedia, pedagogia, psikologia...); genero-indarkeriaren arreta integrala eta berdintasunerako parte-hartzea Guatemalan, eta Ghanako San Francisco Javier Ospitalearentzako laguntza (medikuntza orokorra, pediatria, amatasuna, oftalmologia etab.)

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO “2020KO EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN” PROGRAMAREN DEIALDIARI

Gobernu Kontseiluak oniritzia ema dio **Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren** aginduari; **haren bidez, “2020ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan” programaren deialdia egiten da, garapenerako lankidetzako ekintzen bidez Euskadiko gazteen sentsibilizazioa sustatzeko.**

Programa horri esker bide ematen da **22 eta 30 urte bitarteko 100 pertsonak –gehienez–** Latinoamerikako, Asiako eta Afrikako zenbait herrialdetara udako hiru hiletan lankidetzako proiektu batzuetan parte hartzeko. Deialdiaren bidez, **gehienez 100 gazte** hautatuko dira eta **50 ordezkari**, ukapenak badaude ere, hautatutako garapenerako proiektuetan parte hartzeko; parte-hartzaileei ekintza horien garapena “in situ” ezagutzeko aukera eskaintzen zaie.

Gazteria Zuzendaritzak hautatutako pertsonen **bidaia-gastuak ordaintzen ditu** eta, hala badagokio, helmugako herrialdean sartzeko bisaren gastuak. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa 1993an hasi zen, eta, urte hauetan, **Euskadiko 2.317 gaztek parte hartu dute.** 2020an hautatutako pertsonaren **bidaia-gastuak** eta, **hala badagokio, helmugako herrialdean sartzeko bisaren gastuak** ordaintzeko zenbatekoa, **gehienez 175.000 euro** izango da.

2019ko deialdian, **620 pertsonak eman zuten izena**, eta, hautaketa egin ondoren, **98 gaztek parte hartu zuten** Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako zenbait herrialdetan garapenerako lankidetzak-ekintzetan.



## Enplegua eta Gizarte Politikak

### GOBERNU KONTSEILUAK ONETSI EGIN DU 2020AN GAZTE-MUGIKORTASUNERAKO EDO TRUKERAKO JARDUERAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUKETA EZARTZEN DUEN AGINDUA

Gobernu Kontseiluak onetsi egin du Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren agindua; haren bidez, 2020an **gazte-mugikortasunerako edo trukerako** jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko arauketa ezartzen da. Mugikortasun-jarduerak sustatzen dituzten trebetasun, gaitasun eta ahalmenak eskuratuz gazteak gizartean integra daitezen sustatzeko tresna bat da.

Honako jarduera hauek jaso dezakete laguntza: gazte-mugikortasunerako edo trukerako jarduerak, gazte-mugikortasunarekin edo trukearekin zerikusia duen sustapeneko, zabalkundeko edo prestakuntzako Europar Batasuneko eta lurraldez gaindiko beste estatu edo eskualde kide batzuetako elkarte edo erakundeekin batera jarduerak egiteko.

Kostu ekonomikoa **145.000,00 eurokoa** da. 2019ko ekitaldian, Gazteria Zuzendaritzak **dirulaguntzarako 25 eskabide** erregistratu zituen eta, haietatik, **21ek dirulaguntza** jaso zuten, hainbat jarduera egiteko, besteak beste: “kulturtruk 2019 (Gaztetxo Eskolak egina), “Kaixo - Hei” (Lemoako Udalaren eskutik), “Gaztedrive: gazte-mugikortasunerako aukerak Europan” EDE Fundazioaren eskutik, eta “Gure Sustraien Bila” Kilimiliklik erakundearen eskutik.

## Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### **EUSKADIK BULTZATU 2050 ONARTU DU, HURRENGO 30 URTERAKO HIRIGINTZA-GARAPENAREN AGENDA**

Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda berriaren onarpenaren berri eman du gaurko Gobernu Kontseiluan. Agiri horrek Euskadiren garapena zehaztuko du hurrengo 30 urterako, hainbat arlotan: ingurumena, lurzoruaren erabilera jasangarria, hiri-habitata, energia, ekonomia-jarduera eta enplegua, mugikortasuna eta garraioa, trantsizio digitala, bizi- eta osasun-kalitatea, gizarte-inklusioa eta, guztia laburbilduz, gobernantza.

Hiri Agenda parte-hartze lan luze baten fruitua da eta, bertan, Eusko Jaurlaritzako sailen eta administrazioen koordinazioa ez ezik, askotariko eragileek lagundu dute: unibertsitateak, teknologia-zentroak, enpresa pribatuak, gizarte-taldeak eta GKEak, sindikatua, klusterrak, baita nazioarteko erakundeak ere. Bultzatu 2050ek guztiz bat egiten du Europako Hiri Agendarekin eta, NBE-Habiten bidez, NBEk zehaztutako Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJHeekin), bereziki (Hiri eta Komunitate Jasangarriei buruzko) 11. helburuarekin.

Euskadiko Hiri Agendaren azken helburua da “hiri eta herri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak” lortzea, “inor eta lekurik atzean utzi gabe”. Puntu ahulenei erreparatzen die, aldeak gainditu eta orain egon daitezkeen desorekak hobetzeko. Agiriak Euskadiko biztanleriaren gutxienez % 80ren gainean du eragina, horiek bizi baitira dagoeneko hiri-inguruneetan.

Bide-orri honen garrantzia ikusita, hurrengo astean, Euskal Hiria kongresua egingo da Donostiako Kursalean (hilak 25, astelehena, eta hilak 26, asteartea), Hiri Agenda ardatz nagusi hartuta. Bertan, gizarte-arloan zein ekonomia eta ingurumenean proposatzen diren ekintzak aletuko dira.

Agendak zahartze, langabezi, errenta apal eta etxebizitza zaharrei buruzko askotariko gaiak aztertzen ditu. Gainera, baliabideen ingurumenaren alderdiari ere erreparatzen dio, alegia, energiaren, lehengaien menpekotasunari (Euskal Autonomia Erkidegoan, % 93ra heltzen dena); edo elikagaien buruaskitasunari (EAEk kontsumitzen dituen nekazaritza-produktuen % 19z hornitzen baitu bakarrik bere burua); hondakinen kudeaketa, edo klima-aldaketarako egokitzapenari, zenbait arrisku-egoera gerta baitaitezke, batez ere kostaldean.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritza dagoeneko ezartzen ari da ekintza-planak, adibidez, auzo babesgabeenetan esku hartuz; izan ere, horietan biltzen da biztanleriaren % 31. Oraindik orain 1,7 milioi euro jaso ditu Europako Batzordearen Horizon2020 programatik Opengela proiekturako, hiria berronertzeko, eta bi probatan ekin zaio dagoeneko, Otxarkoaga (Bilbo) eta Txonta (Eibar) auzoetan.

## Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

**ONARTU EGIN DA GIZARTE-LAGUNTZAKO 24 ALOKAIRUKO  
ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO URRETXUKO UDALAK LURSAILAK  
LAGATZEA**

Bestetik, Gobernu Kontseiluak, Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak proposatuta, onartu egin du Urretxuko Udalak Gaizabal eremuan partzela bat dohainik lagatzea. 878 metro koadroko azalera duten lursail horietan, babes ofizialeko 24 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, joan den maiatzaren 22an Gipuzkoako udal horrekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren arabera. 24 etxebizitza horiek gizarte-laguntzakoak izango dira, eta alokairurako.

Hitzarmenak ezartzen du hartzaile lehenetsiak aurreikusitako sarbide-baldintzak biltzen dituzten udalerrian erroldatutako pertsonak izango direla, eta kontuan hartuko da Udalak etxebizitzetako bat beretzat gordetzea, gizarte-larrialdiko edo ordezeko bizitoki beharretarako.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak erabaki irmoa hartu du etxebizitza-sustapen horri lotutako eraikuntza- eta urbanizazio-lanak hitzarmenaren indarraldia amaitu baino lehen bere gain hartzeko: hura sinatu eta lau urte gehienez.

## Hezkuntza

### **500.000 EURO BIDERATU DITU HEZKUNTZA SAILAK EKIPAMENDU ZIENTIFIKOA ESKURATZEKO LAGUNTZATARA**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2020 urtean ekipamendu zientifiko eskuratzeko laguntzak ematen dituen Agindua onartu du. Laguntza hauek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea osatzen duten eragileei daude zuzenduak, UPV/EHU salbu. Deialdi honek 500.000 euroko diru-kopurua du.

Deialdia honen xedea da 2020an zehar ekipamendu zientifiko erosi ahal izateko diru-laguntzak ematea, beti ere hauen kostua 18.000 eta 240.000 euro artekoa bada (BEZ gabe). Era honetan, deialdiak dituen bi helburu nagusiei erantzuten zaie: batetik, Euskadiko zientzia eta teknologia-ahalbideak areagotzea, eta bestetik, ikertzaile-taldeek arrakastaz eta gaitasunez parte hartu ahal izatea Europako ikerketa-espazioaren eraikuntzan.

Ekipamendu zientifikotzat hartzen da, deialdi honetarako, I+G+b jarduerak garatu ahal izateko beharrezko den bitarteko fisikoen (ekipoen) multzoa. Ekipamendu hauek, entitateetako ikerketa-taldeen oraingo zein etorkizuneko ikerketa-proiektuak egiteko egokiak eta beharrezkoak izan behar dute. Ekipamendua erabiliko duten proiektuak 2020an eta 2021ean garatuko dira, ekipamendua entitate onuraduneari funtzionatzen hasten denetik.

Aipaturiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko kide dira, eta beraz, deialdiaren onuradun izan daiteke: Oinarrizko eta Bikaintasun Ikerketarako Zentroak (BERC); Unibertsitateetako zentro, departamentu, atal, institutu edo bestelako ikerketa unitateak, (UPV/EHUkoak izan ezik); Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (CIC); eta Teknologia Zentroak.

## Hezkuntza

### 500.000 EUROKO DIRULAGUNTZA EUSKAMPUS FUNDAZIOARI

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 500.00 euroko dirulaguntza zuzena ematea Euskampus Fundazioari. Diru kopuru hau, batetik, bi aldeek 2017ko abenduan sinatu zuten lankidetzaz hitzarmenean jasoriko laguntza osatzera bideratuko da, eta bestetik, fundazioak abian dauzkan “Bikaintasun Campusa Indartzea” eta “Unibertsitatea-Enpresa” programetara. Era honetan banatuko da diru kopuru hau:

- “Bikaintasun Campusa Indartzea” programa: 300.000 euro
- “Unibertsitatea-Enpresa” programa: 50.000 euro
- Lankidetzaz Hitzarmena: 150.000 euro

2017ko abenduan Hezkuntza Sailak eta Euskampus Fundazioak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, Euskal Unibertsitate Sistemaren jarduerak gizartearen eta ekonomiaren arloko eragileekin hedatzeko eta Euskadiren nazioarteko proiektuak sustatuko duten ikerketa-proiektu bereziak babesteko helburuz. Hitzarmen honen baitan, 2019ko uztailan Hezkuntza Sailak 400.000 euroko dirulaguntza eman zion fundazioari, hitzarmenak ezartzen dituen ekintzak garatu ahal izateko. Gaur onarturiko laguntzak aurreko hori osatzen du, sinatutako dokumentuak jasoriko kopurura iritsi arte (550.000 euro).

***Bikaintasun Campusa Indartzea*** programan, Jakintza Guneen Komunitatea hedatzeko lanarekin jarraituko du Euskampus Fundazioak, agregazio-entitateen gaitasunak aktibatze eta konektatzeko formula gisa, eta horiek helize laukoitza duten gainerako eragileekin batera, erronka globalei tokiko erantzunak sortzera bideratuz. Zehazki, honako polo hauetan ari da lanean: Itsas-energiak; Lurralde jasangarri eta osasungarriak; Giza-osasunerako zientzia eta teknologia; 4.0 Industria; Jasangarritasunerako material berri eta funtzio anitzekoak; Datuen zientzia eta eraldaketa digitala. Gainera, ikertzaile-komunitate berriak sortzeko aukera ere aurreikusten da, hauetatik Jakintza Gune berriak jaio daitezkeelakoan.

Bestalde, ***Unibertsitatea-Enpresa*** programan, Hezkuntza Sailak bultzatutako Unibertsitatea+Enpresa Estrategiak ezarritako helburuak lortzeko lanean jarraitzen du fundazioak. Estrategia honek proposatutako helburuek eta ekintzek Europako Batzordearen kontrastea, ekarpena eta balioztatzea jaso dute. Beraz, estrategia hau erreferentziatzeko dokumentu bat da, eta beronen edukia Europako hezkuntza- eta garapen-politika berriekin ere lerrotuta dago, besteak beste, lankidetzaz testuinguru zabal batean gertatzen den unibertsitate-prestakuntzari dagokionez: enprekin, beste erakunde batzuekin eta euskal lanbide-heziketarekin. Estrategiaren helburuen artean nabarmentzen du, hain zuzen ere, gaitasun handiko giza kapitala prestatzea, enpresa-esparruko premietara aplikatutako eta egokitutako osagai batekin.

## Hezkuntza

### **200.000 EUROKO DIRULAGUNTZA DIPC - DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTERRI, SUPERKONPUTAZIO ZENTROA HOBETZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Donostia International Physics Center Fundazioari (DIPC) 200.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea, bere Superkonputazio Zentroaren zerbitzu-eskaintza areagotu dezan.

DIPCren Superkonputazio Zentroa, eta bertako “Atlas” superkonputagailua, funtsezko erreminta da DIPCeko bertako ikertzaileek nahiz inguruneko beste ikertzaile talde batzuek burutzen duten bikintasunezko ikerketarako. Fisika eta Kimika konputazionala Euskadiko ikerketa-lerrorik sendoenetako bat da, eta DIPCren Superkonputazio Zentroa funtsezko baliabidea izan da horren garapen maila altua zergatik lortu duen ulertzeko.

#### **Talentua erakartzea**

Azpiegitura konputazional ahaltsu hau, kalitatezko ikerketaren alde erakundeetatik egiten den apustuaren erakusle izateaz gain, Euskadin abanguardiarako ikerketa egiteko ditugun baliabideen irudi ere bada. Era horretan, talentua erakartzeko foku bihurtzen da baliabide hau, bai ikertzaile bisitariarentzat, bai zientzialari iraunkorrentzat (Ikerbasqueren programen bidez erakarriak, kasu).

Zentro hau, Errendimendu Handiko Konputazioaren garapenerako apustu estrategikoa ere bada (HPC edo High Performance Computing), ez soilik erreminta gisa, baita EAEko berezko diziplina gisa ere.

HPCan diharduen zentro bat, goi mailako baliabide fisikoak, teknikoak eta giza baliabideak dituen, ezagutza teknologikoaren, berrikuntzaren eta formazioaren foku bat ere bada, eta beronen eraginak eta garrantziak hastapeneko bere misioa ere gainditu egiten du.

Eusko Jaurlaritzak azken urteotan egin duen inbertsioari esker –bi milioi eurotik gorakoa 2016tik hona-, eta “Atlas” superkonputagailuak aldian-aldian izan dituen gaitasun handitzeekin, DIPCren Superkonputazio Zentroak hirukoiztu egin du potentzia, eta Estatuko ahalmen handieneko bost superkonputagailuetako bat da.

DIPC-ren Superkonputazio Zentroa lagungarri da ikertzaile kopuru zabal batek punta-puntako ikerketa lerroak gara ditzan nanoelektronikan, polimero eta materia bigunean, nanofotonikan, edo dinamika elektronikoan.

## Presidencia

### **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE 25 DE NOVIEMBRE “DÍA INTERNACIONAL PARA LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES”**

Con motivo del 25 de noviembre, “Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres”, el Gobierno Vasco expresa su firme repulsa ante todas las expresiones de violencia sexista, así como su compromiso con la construcción de una sociedad igualitaria libre de violencia contra las mujeres.

Consideramos absolutamente necesario recordar que la raíz de la que nace la violencia contra las mujeres es la desigualdad de mujeres y hombres, y, que, por tanto, es indispensable trabajar en igualdad para poder construir una sociedad libre de violencia contra las mujeres.

La violencia contra las mujeres tiene un carácter estructural y afecta a todas las dimensiones y ámbitos vitales. Por ello, la respuesta del Gobierno Vasco a la violencia contra las mujeres es interdisciplinar e implica a todas las áreas del gobierno con competencias en la prevención y atención a las necesidades de las mujeres en cualquiera de los ámbitos en los que desarrollan sus vidas.

Hoy reiteramos nuestro compromiso en seguir trabajando coordinadamente tanto entre los departamentos del Gobierno como con otras instituciones para avanzar hacia una sociedad libre de violencia contra las mujeres y atender con las máximas garantías a las mujeres víctimas de violencia.

Seguiremos trabajando desde el departamento de Empleo y políticas sociales a través del Servicio de Información y Atención telefónica a Mujeres Víctimas Violencia 24h.- SATEVI y de las Prestación económicas a mujeres víctimas de violencia de género; desde el departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, facilitándoles el acceso a la vivienda; desde el departamento de Salud, a través de la atención especializada; desde el departamento de trabajo y Justicia, a través del Servicio de Atención a la Víctima (SAV), del Centro Coordinador de Violencia Contra las Mujeres (CCVCM), de la asistencia jurídica gratuita; desde el departamento de Educación Plan Director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo, o programas específicos como Nahiko, Beldur Barik...; desde el departamento de Seguridad, ofreciendo seguridad y protección a las mujeres víctimas; o desde la apuesta por la formación de profesionales que atienden a las mujeres víctimas, a través de programas formativos como Jabetuz. Todo ello bajo la coordinación de Emakunde.

El Gobierno reafirma su compromiso en la mejora continua para dar una respuesta adecuada a ese enorme desafío que se recoge en el VII Plan para la Igualdad de mujeres y hombres y en el objetivo 5 de la Agenda de Desarrollo Sostenible 2030. Compromiso que se tratará de reflejar en la nueva propuesta

de modificaron de la ley vasca para la igualdad con el fin de reforzar la igualdad y la erradicación de la violencia contra las mujeres.

Finalmente, reconoce el trabajo de las y los profesionales que desde diferentes ámbitos trabajan cada día para dar respuesta a la violencia contra las mujeres. A la vez que traslada un mensaje de apoyo, solidaridad con todas las mujeres que se están enfrentando a estas situaciones. Anima, asimismo, a la ciudadanía a que muestre una actitud diaria activa y de rechazo a la violencia contra las mujeres con compromisos diarios y participando en las distintas movilizaciones que se han convocado para el día 25 de noviembre en distintos pueblos y ciudades.



## Gobernanza Pública y Autogobierno

